

# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

225n. zenbakia  
urterrilla 1998



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**ORREAGA'KO ANDRA MARI**

---

# SINISMENAREN EZA EUSKALERRIAN

---

Idatzitako bere azken liburuan Aita Agirretxe'k aipatzen du zabal zabalik urte auetako gertakizun aundienetakoa: Euskalerrian sinismenaren aldetik, gazteak elizara joateari utzi diote, egitazko sinismenaren galera. Aldaketa aundi baten aurrean gaude. Ez da nolanaiko elizari uztea; indar aundiko gorrotoarekin inguratua dago, naiko lotsagabea aurrez aurre agertzen dena. (Aita Agirretxe, Aldi hartan, Itxaropena, Zarauz 1995).

Orrelako erasoaldia datorrela Elizan, bi galdera egin bearrak daude. Bat: nun dago gertakizun orren iturria? Bi: nor da sinismenaren GALERAREN errudun?

Ager ditzagun gertakizun onen zutabeak. Bizpairu dauzkagu nunai ikusten ditugunak. Ezaugarri ezagunak auexek dire: apaiz uzteak, apaiztegi ustutzea, sendiaren urratzea, emakume loitzea, gaupasak, sektak, pekatu berexirik ez aitortzea, begiramenaren galera, gizonetzko nasketa eta abar. Ikus ditzagun gertakizun oiek banaka.

Apaizuzteak eunka ditugu gaur gure artean. Lantokiak ugaritzen dijoaz, langilleak urritzen. Erriak ori ikusita biotz askotan sinismena oztu da.

Apaiztegi ustutzeak nornaik ikus ditzake. Gure artean ba ditugu apaiztegi galantak, garai batean beteak zeudenak eta orain dela ogei urte asita, urtetik urtera gutxitzen dijoaztenak. Apaizen etorkizunik gabe gelditzen dire gure elizak. Giro ortan apaizen lanak zamatzten dijoaz eta bizi diren apaizak lanpetuta ta lertuta.

Nunai ere ikusten ditugu ezkontza austeak. Amar, ogei urte eutsi ezkontzari ta egun batean denak utzi eta jentillen modura bizitzen asi: Jainkoaren legea era bat autsi. Biotz askotan maitasunaren orde zorrotoa sortzen da.

Sektak nunai jaun ta jabe. erri txiki askotan ta urrutiko baserritan sendi osoak sasi kristau taldeetan sartuak.

Lengo egunean joan da apaiza bere errira ta bere etxeoak arkitu ditu sekten billeran. Orrekin oiturak era bat aldatzen dijoaz.

Gaupasak eman diote gazteen sinismenari ikaragarriko jipoia. Aste buruetan gau osoan gaztedi illuna lizunkerietan; neurri guztiak erre, askatasun guztia aragiari, edariak ugari, drogak nunai, biderik errexenak esku ondoan, danetatik ikusi, sortzen dena egin. Sendia utzita, beste neska edo mutillekin bizitzen asi. Jai baten gabaldian zernai ikusi dezakegu iriaren erdian.

Jaiak eta erromeriak illundu zakizkigu. Gazte talde mardulak ikusi oi ditugu biraoka, karraxika, naita Jainkoaren izena zikintzen. Baita taldeak sortzen, gazte oien bizitzak zikintzeko eta era bat aldatzeko. Oiek lanak guraso gizajoentzat!.

Aitortzak direlata gauza bat garbi ikusten duguna; apaizak zalantzan utzi dituztela lenagoko aitortzaren bideak eta kristau geienak ez dute aipatzen oben (pekatu) berexirik. Oben denak multzo batean sartzen dituzte.

Elkarren begiramenik ez geiago. Alderdi ortik asko galdu dugu. Norbe ak bere burua maitatzeko begiramenik ez dago geiago len bezala.

Gai oneri buruz atera den liburu berria aipatu bear. Sinismenaren galeraren berriak aztertzen ditu ta apaiz batzuen jokabideak ikertzen. Ikus liburu orren ezaugarria; "Joseba Zulaika, La violencia vasca".

Sinismenaren uzteak asko ikustekoa dauka Elizaren arduraduneeen jokabideekin, jaramonik ez dietenean agertzen emen aipatutako gaitzeei edo kalte ikaragarrii. Sinismena nola dijoan goitik bera ikusi ta erabaki egokiak eta bear zirenak artu ez. Batzuek lanetik bizi dire ta besteek ez dute Igandea geiago zaintzen eta bestiak oraindik gutxiago, izoztuak daude beti, ez da otsik entzuten ezta belar txarra ere salatzen. Zer egiten du agintaritzak?, erriak galdetzen du.

Bitartean nork lagundu gaurko aurren gurasoak? Elizan teknokraten bearrak ez dago. Mistika baten bearrean gaude.

**LATXAGA**



**Eusko Jaurlaritzaren  
Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.



---

# MENDEBALDE KULTUR ALKARTEA'RI

---

Ba-genkian, ez ain antxiñatik. Mendebalde deritxon talde bat sortu dala eta talde onen sortzaille Alfonso Irigoien zala, eta gaur bertan, azillaren 14'an irakurri dot DEIA'n talde oneri begira barri-emote luze ta zabal bat, Juan Luis Goikoetxea adiskide aundiaren argazkia lau eratan agertzen dala, baita ertz baten Amuriza adiskidearena be.

Lenengo ta bein beiokie ZER egiten dogunen izenean eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izenean agurrik beroena Mendebaldekieai eta agurragaz batera gure esker ona Bizkai'ko euskerearen aide jokatzeko datozelako. Guztion artean lortuko al dogu gure euskereak bizirik irautea. Bizkaia'n Bizkai'koak.

Alfonso Irigoien'eri buruz orain-artean be esan dodana gogoratuko dot barriro: Deustu'ko Ikastetxe Nagusian izan zan eta gaia Bizkai'ko euskerea eban batzar ospetsu baten, Alfonso'k Bizkiareari buruz berba egiteko batua erabillega entzuten neban eta esan neutson: Alfontso! Bizkaia'n eta Bizkaieria gai dauan batzar onetan zuk zergaitik egiten dozu berba batuz? Eta bere erantzuna auxe izan zan: "Nik erran dut eta zuk ulertu duzu". Orrelan aterako ete dogu aurrera gure bizkaieria?

Eta DEIA'n gaur irakurri dodan barri-emotean be beste orrenbeste ikusten dot: Bizkaiko euskereari buruz berba egiteko batua darabillega. Danean ez ba'da, geienean. Orra or Larramendi'ri egiten geuntson azterketa bera egin-bearra. arek erderaz goraltzen eban euskerea eta orain batuz goratzen dogu bizkaieria! Ai! Bizkai'ko gure idazleak! Nondik nora dabilzan!

DEIA'ren orri beratan eta barri-emote onen barruan dator Amuritzaren eritxia. Eritxi au ezagutzen gendun, bai Iruña'n dan erri-aurreko Ikastetxe Nagusian izandako alkar-izketatik eta bai beste etorbide batzutatik. Amuritzaren besteak baiño zuzenago dabil. Emen beintzat bizkaieraz idazten dau bizkaierari buruz. Nik zeozer aurka esateokotan, atxearen arazoa aitatuko neuke: Bizkaieriak ez dau

bear atxerik, batua bear ba'da be, atxea baturako kaltegarria da. Zergaitik ez bein betiko alboratu alperreko atxe ori? Kalteak bai eta onurarik ez dakarren atxe ugari ori? Baiña itzi daigun arazo au oraingo, lenengo sortu bear doguna bizkaieria bizirik ateratea da eta orretan batera lan egin geinke. Egunen baten atxea kentzea bururatzen ba jaku,erabagia artzea da naikoa, ez dago ikasketa barririk egin bearrik. Guk atxe barik jarraituko dogu.

Mendabalde'ren laguntzailleak be agertzen dauz Juan Luis Goikoetxea adiskideak (Kintana, Alfonso'ren maillan itzita): Adolfo Arejita adiskidea lenengo, eta gero Jazinto Iturbe, Iñaki Sarriugarte, Rikardo Urrutia, Iñaki Gaminde, Maribi Unamuno, Eneko Barrutia, Kaltzakorta markinaarra ta abar...Or agertzen diran izen batzuk adiskideak doguz eta iñoz lankideak be izan dira. Poztu egiten gara bizkaieraren arazoa gogoz artu dabelako.

Gaurko idaz-lan onegaz, nire ustez, lendik be argi izan diran arazo batzuk gogoratzen dira. Berba gitxitan esateko: Bizkai'ko euskerearen aide lan egiten dogunok zati bitan gagoz, batzuk atxeagaz eta beste batzuk atxe barik idazten dogunak. Bizkaieraz idazten ez dabenak be or dagoz. Guztio ekin daigun Bizkai'ko gure euskerearen aide, erri-aurreko erakundeetan, ikastegi guztietan, aldizkarietan, liburuetan, albiste-bide guztietan (batez be ETB'n) eta bizkaieria bizi dan artean, euskerarik erdia bizi da. gitxienez erdiak diran ezkerko bizkaieraz berba egiten daben euskaldunak. Beste euskalkiak be aurrera egin bear dabe eta egiten diardue, baiña batez be naparroa ta iparraldeko euskalkiak dauke gure laguntzaren bear-izanik aundiarena. Gipuzkoera batuak berak daroa aurrera, geien bera sartu dalako batuaeren barrura.

Guk jarraitu daigun gure bizkaieria zaintzen eta indartzen, bizkaieraz berba egin eta idazten.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

## ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK  
BILBAO BIZKAIA KUTXA  
Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eigu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear**

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**

---

## **BASERRIA ETORKIZUNARI BEGIRA**

---

Gaurko gizartean lan-arloan antzualdi gogorra bizitzen ari geran bitartean, gure baserria esparru ontan itxaropen-tsu agertzen zaigu, naigabea berdingabeko euskal lantegia sortzen ari zaigu. Lan urriak eraginak edo burua arindu digu eta onek lagundu digu irtenbidea arkitzen arazo oni.

Neri dagokidanez baserriko gaia jorratuko det eta batez ere buru-belarri iraultza ontan murgilduko naiz argibide franko emanaz. Jendeari begiak zabaltzen aleginduko naiz eta baserria gainbera dijoala pentsatzen dunari begietatik lauso ori kenduko diot eta erakutsiko diot egoera guztiz bestelakoa dala. Nik baserriari geroa baikor ikusten diot eta amaika bat arrazoi jator emango ditut au baieztatzeko.

Idazlan au atari gisa dijoala, itzaurre edo aintzin-solas antzeko bat izango da, Urrengoetan adibide zeatzagoak jarriko ditut, baserri-izena, nagusiarena eta etxe ortan lanmota dabilkitena ipiñiko ditut nere idazkietan, irakurleak jakin dezan gure erriak aide ortatik aurrera darraielu sekulako aurrerapenekin eta gaurko egoera negargarri oni aurpegia ematen asmatu dula.

Leen esan detan arabera gure basetxeak olategi edo enpresa koxkor bihurturik ageri zaizkigu guztion pozarako, aldaketa ontan asko lagundu diete atzerritik dakarzkiguten lan baldintza berriak. Oietakoren bat aitatzekotan negutegiak edo erderaz "invernaderos" deritzaiotenak esango nuke; auek egundoko irabazpena eman diote gure baserri-tar saiatu orri. Zergatik? galdetuko didazu, txit erreza da azaltzea eta ortara nijoakizu. Barrunbe oietan baserriarrak

ia-ia uzta galtzeko arriskurik eztauka, esan dezakegu osorik bilduko dula etekinik aundiarena atereaz. Naiz eta eguraldia oso txarra izan, ebia egin, kaxkabarra, txindorra edo arria bota, aize bortitzakjo edo goiak goibel egon, barazkia babestula egongo da eta onek ezti erasoko. Alderantziz baldin bada, eguraldia oso legorra izaki, berdintsu, nekazariak landareak bear dun ur guztia emango dio, urbideak oso egokiak baitituzte negutegi oiek. Oraingo egunetan azken au. bustialdiak (riegoak), ordenagallu baten menpean daude, baserriarrak bakarrik alde aurretik aginduak emango dizkio ordenagalluari eta kitto, gero tresna au arduratuko da landareak ureztatzeaz. Beraz, ureztapena bere gain geratuko da. Onek esate baterako lana asko errezen dio basen-ian diardunari eta beta izango du beste nunbaiten aritzeko: tomatea bildu bear badu ura bildu, karramarroa pasa nai badu lurra gorritzeko ortan jardun alko du askatasun osoz.

Ikusi aal izango degu lerro auen bidez adibide polit bat paratua, baserriak sekulako urratsa eman dula eta danok zoriontsu egon bearko genuke ezpaita albiste kaxkarra gaur plazaratu deguna. Arira bueltatuz urrengo idazlanetik aurrera aleginduko naiz aalik eta lan mamitsuagoak pape-retara ekartzen, oar eta jakingarri geienak zeatz meatz argitaratzen.

Norbaitek zer edo zer garbira ateratzen badu ontatik gaitzerdi, irabaziko duna gure Euskalerrria izango da.

**JOXE INAXIO SALABERRIA**

### **ASKO ZOR DIOGU**

Bertsolaritza maite detanez  
itzezingo det pixkabat,  
espan-u ontan bada gizon bat  
lana egin duna ainbat;  
au da Aita Zavala,  
jator eta eskuzabala,  
Auspoan libruak zenbat!!  
Euskalerrria jakintsu onekin  
zorretan dago erabat.

### **NAPARRAK ERE EUSKERAZ**

Gure izkera Napar aldian  
eztago modu erosuan,  
agintariak mintzaira zarra  
baitabilkite erasuan;  
baiña erriak "Nafarroa oiñez"  
noizbait asmatu zuan,  
burutazio eder polita  
izan zutena auzuan,  
aurki euskera entzungo degu  
orko lurralde osuan.

(1997-XI-8)

**JOXE IÑAXIO SALABERRIA**

---

## **BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ**

---

---

## EUSKERA ZABALTZEN

### EUSKARAREN MUGA BERRIA

---

Bi elburu bete nai ditugu lan onekin. Lendabizi Santo Tomas'eko azoka zer dan ikusi naiko genduke; gauza aundi bat, egitazko bitxi bat Euskalerriarentzat.

Aurretik ondo jakin bear, zer dan, zer balio ote dun?; bidezko asmoa.

Gai ori ondo lortu dugula, orduan dator bigarren jokabidea: zuzen ikusi ikastoletan aurren begia zorrozteko, Santo Tomas'en azokaren garrantzia ikus dezaten.

Egitazko eziketak aurren nortasuna, erriarekin batean lotzen du. Egitazko ikastolak erriarekin batean bizi bear du.

Azoka da erriarentzat garrantzi aundiko gauza. Ze alderdi aberatsak dauzkan Santo Tomas'eko azokak eta ori ongi ikustea gure irabazia izango da.

Ortxen daukagu iker lan bat egiteko aukera. Gaia gurea da, eziketa on bat egiteko guztiz ona.

Lanarekin irabazleak ikasleak dire: azterketa egiñez, begia ondo zorrozteko zaie. Orrela, euskal gaiak ausnartzen ikasiko dute. Lanbide ori erabilliz, aurrerapen aundia emango du euskal eziketak.

#### SANTO TOMAS'EKO AZOKA

Elizaren egutegi zarraren santutegian Abenduaren 21'an, Santo Tomas eguna ospatzen zen eta Donosti egun onetan egiten zen azoka. Gero elizak Santo Tomas'en eguna aldatu zuen, bañan Santo Tomas'eko azokak egun berdiñean jarraitzen du.

Santo Tomas'en azokaren jarraitze orrek bi oñarri ditu. Santo Tomas'en azoka baserriarren jaialdia da, -bat. Santo Tomas'en azokak negu kutsua dauka. Neguan baserriarrak, jai, erraxago egin dezakete.

Donostia'n gaur, azokarekin baserriarren eguna ospatzen da. Euskalerriarentzat azoka egun orren jaialdia izen aundikoak dire.

Baserriarren egun orretan, baserriko emaitza azaltzen da, gure erriaren gauza ederrak eta giro berexi ori sortzen alegintzen dire.

Bazter ederretan baserriko igali ta barazkiak ageri: sagar orixka gazi-gezak, baita neguko udariak, intxaur legorrek, urrak koxkor aundikoak, azalora garbiak, zañoriak, ensaladako ostokurtuak, gure baratzeko landareak ezin obeak. Gure ollotegiko eredu bikañak ikus ditzazkegu; ollar indartsuak, olio erruleak, antzar zalapartatsuak, Eguberrietako kapoi berdin gabeak. Erri-tarrak aiei hegira ao zabalik, den denak ikusten.

Baserriarren eguna ospatzen delako, erri-jolasak ere erakusten dituzte: indarra txapeldun. Baserriarekin zer ikusia daukana agirian dago: ardi-gazta izerdi orikoa, opillak egiten bazter guztietan, txistorra berriz zer esanik ez. Orixe degu txistorra jateko eguna.

Sagardoa ta txakoliña, gure baserrietan egiten zituztelako, egun orretan gure kaletan ikus ditzazkegu, neurri guztietako ontzietan.

Baserrietan sortutako ustegabeko gaiak ere ortxen bertan azaltzen dituzte, azkeneko urte auetan; adibidez, txorimaloak eta gai ortarako txapelketak egiten dituzte, baita etxeko altzairu sendoak.

Urte batez, Donosti'ko bulebarra txorimaloz inguratu zuten; zorionezko ikustaldia zegoen, nortasun aundiko bilduma ta asmo berri sortzailea, ederti lanen aldetik. Egitan asmo ezin ohea eta etorkizun aundikoa.

Baserriko altzairuak, egur ederrekin eskuz egiñak ikusgarriak. Etxean bear ziren gauzak izaten zituzten, baiñan, ori bai, guztiz ederrak, gaur bertan etxe berrietan gauza aundi bat beza-

---

## BASERRIA

---

la sartzen dituztenak: kutzak, maiak, alkiak, krisalluak, kaikuak eta abar.

Baserritarren eguna ospatzen delako, erri-jolasak egiten dituzte; indarra errege. Trinitateko enparantzan ikus ditezke egitazko aizkolariak edo idi-dema,gure baserritarrentzat jolas atsegiñenak.

Egun orretan ere erri-kultura nolakoa den ikus ditekete errex: bersolarien txapelketak egiten dituzte, aozko kultura zarra, baita euskarazko antzerkiak. Oso atsegin zaizkio gure baserritarri.

Baserritarren oitura zarrak egun orretan beritzen ziren. Eguberri inguru orretan bi gauzen garaia zeukaten: masterrak urteko-saria ordaintzeko garaia ta nagusiarentzat oparia eramateko eguna. Baserritarrentzat oparia, kapoi bikotea izaten zen eta nagusiaren ordaña edo eskerrak, bakallu legorra gatzatua, baita ere txokoltia; "odolkiak ordañetan", esaera zarrak dionez.

Baserritarren egun ori, denon eguna izaten da, nolabait gure erriak baserriekin lotuak gelditzen direlako. Baserriarekin denok daukagu zer ikusia; batzuek an sortuak, besteak, norbait an jaioa, amona edo aitona.

Aurtxoan eguna ere da; aitona —amonen gonak eta abarkak jantzita, asaben oitura zarrak ospatzen dituzte.

Egun ori euskaldunen jaia bat egin dute; lagunekin bildu, gure lurreko emaitza ederrak ikusi, atsedean on bat artu, oiturak berri, txistorra jan, sagardoa edo txakoliña edan, anaiarte sortu, eta une zoragarri bat igaro, begiak edertasunez bete....

Garai berdiñean, Euskalerriko eskulanen azoka egiten dute:kutzak, makilak, uztarriak, arri-landuak, armarriak, atabakak eta abar. Bakotxak bere gaiak lantzen ditu.

Santo Tomas'eko azoka, Euskalerrian ederretako bat izaten da, eta gizasemez ondo ornitua; erruz biltzen dire bazter guztietatik, eta nola ez?, Lourdes'tik ere etortzen zaizkie.

### IKASTOLAN ZER LANDU?

Andereño Maritxu'k ogeitazortzi aur dauzka bere ikasgelan, denak Donostiarrak eta erabaki

bat artu du bere ikasleekin: urrengo egunean Santo Tomas'en azoka izango da irian. Egun ortarako, adi-adi jarri nai lituzke ikasleak, azoka onen garrantzia eta edertasuna ikus dezaten.

Azokaren esanaia, aurrei ordu erdiko itzaldia-rekin agertu die.

Aurra Eguberriko oporretara zijoazten, lan batzuek etxean egiteko zituztela. Lan oiek Santo Tomas'en azokarekin zerikusia zeukaten. Ikerketa lan bat zeukaten egiteko. Urrango egunean, au da oporretan, lendarri azoka ikusi ta gero galdera batzuei erantzunak eman. Galdera oien zerrenda andereñoaren ateskian, idazlan ontan bertan arkitzen da, bukaeran.

Galdera oei erantzun ondotik, eskuz azokari buruz marrazki bat egin bear zuten. Bakotxak bere ustez azokaren ezaugarri arrigarriena marraztu bear zuten. Geienak txerria agertu zuten; batek berriz "makila egillea".

Azkenean, eskulanen azalketa egiteko zeukaten: lantegi bakotxa ikusi bear, baita iru tokitik ezaugarri bat aukeratu, gauza polit bat, adibidez, orrialdetxo bat lantokiren baten berriekin edo erosleentzat dauzkaten marrazkiekin edo edozein iragarki berexiarekin. Iru eredu bear zituzten aukeratu aur bakotxak. Lan oien aukerak egiten du aurren begia. Ortze dago irabazi guzia.

Oporren ondotik, andereñoak, aurren lan guztiek biltzen ditu, baita gauza guzti oiekin erakusketa bat osatzen eta orren ondotik sariketa bat egiten. Aurten saritua Begoña izan zen. Liburu baten antzeko kuadernoa ekarri zuen, patrika gardena batzuekin eta or barrenean iru ezaugarri: makila egillearen papertxoa, arrizko irudiak eta kuttunak, baita ere "Aiz" izeneko eskopeteen egillearen papertxoa. Ori dena kuaderno batean ondo jarria ikusita, aukera ederra, aurren begiak esnatzeko, eziketa on bat egiteko.

Orrelako ariketekin, ikastaldiak erriaren jakintzan oñarrituak gelditzen dire. Ortzen dago Euskalerraren etorkizuna.

**LATXAGA**

---

## ATSESKIA: ANDEREÑOENTZAT ORRIALDE BEREXIA

---

### LAN ONEN ELBURUA

—Erriarekin bizi.

—Santo Tomas'eko azoka erriaren jai aundi bat.

—Ikastolako aurrak erriaren bitxiak eta nortasuna ezagutu bear dute.

—Aukera ona iker lan bat egiten aurrei erakusteko.

—Lan onekin aurren **begia** egin.

### ZER DA SANTO TOMAS'EKO AZOKA?

—Baserritarren eguna ospatzen da ta baserrian dauzkagun erroak.

—Baserriko emaitza azaltzen da.

Emaitzaren edertasuna denak ikusi dezaten: barazkiak, neguko barazkiak, igaliak, egazkiak, gaztak, taloak, txistorra, sagardoa eta txakoliña.

—Baserritarren lanak: txorimaloak, eltzairuak.

—Baserritarren jolasak: antzerkiak, bersolariak, aizkolariak; erri-jolasak, idi-dema eta abar.

—Baserrietako oitura zarrak :denok dugu gure erroa baserrietan.

Maisterrak kapoiak ekartzen zituzten nagusientzat.

—Baserritarren jaialdia izaten zen.

—Baserritarrekin batean aurrak ere ospatzen dute jaialdi ori. Baserriko aurren jaia ere izaten da.

Danen jaialdia: erriaren gauza ederrak ikusi, lagunekin alkartu, txistorra jan eta abar. Jaia egin, atsedan.

—Eguberriko azoka egin: gaurko lanaren emaitza ikusi, sariketak egin.

—Euskalerriko eskulanean erakusketa. Ze eskulanak lantzen dituzten.

### GALDERAK aurrentzat:

—Zer da politena zuretzat azokan?

—Ze aztarnak dituzu baserrian?

—Baserritarrak zer ekartzen dute azokara?

—Ze jolasak maite dituzte baserritarrak?

—Zergatik entzuten da asko euskaraz azokan?

### IKERKETA LANA

—Esku lanak ikusi eta bildu **iru ezaugarri** politenetakoak, adibidez, txartelak, agiriak, papertxoak.

—Ondo agertuaz ekarri ikastolara ta **SARIKETA EGIN AURREN ARTEAN.**

**MARRAZKI BAT EGIN: TXAPELKETA IKASTOLAN. AZOKAN EGIN**

## ERRI-BARRIAK 11N. ZENBAKIA EUSKERA ERABILLEREA



Nire eritxi apalean, azken zenbaki ori orain arteko zenbakietatik zuzenena dogu, euskerearen erabilera dala-eta. Esan bear da, bizkaiera estandarra ezin obean erabili dabela bai jostkerearen aldetik, baita aditzaren aldetik be. Idazkeran irarkolako iratxoak egindako akatsak eta laprastadak kenduta, jakina. Pozgarria, benetan!

Idazki onen zergaitia ez da, baina, inori zorionik emotea edo inor goraldutea. Oidalako gauzatat artu bearko geunke-eta euskeraz ondo eta zuzen idatzea, erderaz emoten dogun lez.

Oraingo onetan, bertan erabili daben iztegiari buruz natortzue. Iztegiaren aldetik, zuzen egon arren be, beste era bateko erispide bat erabiltea egokiagotzat emongo neuke Bakio lako erri euskaldun batentzako. Zuen aurrean ekarri gura dodan erispidea, iztegia erabilterakoan, bertoko iturburuetan edatekoa da. Au da, bertoko berbak erabiltea, bertokoentzako eta eurek darabilen euskera bizi orren ereduarentzako askoz be urragokoak diran berbak erabiltea. Alde batetik daukaguzan altxor txiki orreek ez daiguzan galdu, bestetik bertoko euskereari balioetsi bear deusogulako, euskereak berak gure artean izen ona euki daian gura badogu, beintzat. Eta zelan obeto, bertoko berbak eta esapideak erabiliz baino. Inoiz euskerea Bakion normalduko bada, Bakioko euskeran oinarrিতා izango da. Eta alan izan bear be.

Alan bada, ona emen HERRI-BARRIAK 11. aldizkariaren orrialdeetatik ataratako berba zerrenda laburra. An agertuten diran berbak ondo egon arren be, albokoak egokiagotzat artuten dodaz. Esan bear da, Bakioko zerrendako berbetan mundu sinboliko eta hallo etnolinguistiko itzela dagozala, eta bada sasoi baliotasun ori ikusi eta ikusi eragiteko.

### HERRI-BARRIAren

otarre.....  
aldamenean.....  
au dala medio.....  
eduki.....  
ezinbesteko.....  
ots.....  
zaintza.....  
barne.....  
bukatu.....  
jadan ik.....  
aurtzaindegi.....  
u ol de.....  
euri-jasa.....  
ai patu.....  
jabe.....  
jabetu.....  
bereizi.....  
gertuago.....  
bizpairu.....  
-txo.....  
g al detu.....  
urbildu.....  
Estepona ibaia.....

### BAKION

otzara  
alboan  
au dala eta  
euki  
bear-bearrezko  
au da, esaterako  
jagotza  
barru  
amaitu  
daborduko  
umezaintoki  
uriol  
euri-zaparrada  
aitatu  
jaube  
jaubetu  
banandu  
urrago, parajeago  
bi-iru  
-txu  
itandu  
urreratu, parajetu  
Oxaorta errekea/ibaia  
Nire ekarpena gauzak onduteko izan daiten gura neuke, baita norbera zer eta nongoa dan arrotasunean arro egon daiten be.

Iñiaki MARTIARTU  
1997ko zemendian



# LENENGO EGUNA: BERTSOLARITZA

## (1997-12-1)

1—Gaurko itzaldi au parte bitan zatituta agertutea pentsatu dot. Alde batetik, bertsolaritzearen inguruan dagoen kontzeptuak azaldu, eta beste alde batetik, bertso beraren egitura praktikoa.

— Orduan asi gaitazan lenengo parteagaz.

2—Asteko egin bear dogun itauna auxe da:

Zer da bertsolaritza? Bertsolaritzaz mila gauza esan dira: arte bat dala, euskal kulturaren esentzia, folkloreak adar bat... Ain gauza ez onak bere esan dira bertsolaritzearen ganean: arte pobrea dala, jente ezjakinak zezer adieraztuteko modua, formula batzun errepikapena, arte zakarra dala eta abar.

Ederra edo zakarra dan pentsa aurretik, bertsolaritza dibertsio bat dala esango bagendu, ez geunke utsik egingo. Bertsolaritza izkuntzan oinarrituta dagoan dibertsio mentala da.

3—Dibertsio moldea, ostera urteekaz aldatuten joan da. Eta orren ondorioz lengo bertsolaritza eta gaurkoa ez dira bardinak. Lengo bizikeran, dibertsioa artean beingoa izaten zan: domeketan.

Eta domeka berean be atsaldez, goizean eliz bearrak ziran nagusi eta. Atsaldez erremeria izaten zan. Antxe batzen zan aste osoko dibertsioa. Erromeria bera, ordu batzutan izaten zan, neguan laburrago eta udan luzeago. Baina, erromeria bein amaituta, orduren bat edo bi plaza inguruan eta gero neskatoak etxerako bidean lagunduteko ordua etorten zan. Neskatoak lagunduteko ordu orren aurretxoan eta batez bere ostean, bertsolariak agertuten ziran. Erromeria amaitu arren, dibertsioa zelan edo alan luzatu gura zan. Inor be ez zegoan etxerako prest.

Dibertsio molde orretan erri osoa batzen zan, leku berean geldi eta denpora luzean.

— Gaurko dibertsio moldea beste era batekoa da. Gaurko bertsolaritzearen leku sozialak aldatu egin dira. Asteko, gaurko dibertsioa ez da domeketan bakarrik izaten. Orain, zapatua domekearen modukoa da eta bariku atsaldeak be bai sarri askotan.

Gaur gazteriak denpora gitxi egiten dau leku berean. Berba baten esateko, gazteria sakabanatutean lengo erri nukleoa apurtu egin da.

Entzulegoa bera be diferente edo eterogeneoa da. Baina beste alde batetik, gaurko bertsolaritzaek albi-

de geiago daukoz. Gaurko bertsolaritzeak aktibotasun geiago dauko. Esate baterako, bertsolari alkar-teak, bertso eskolak, sariketak, leiaketak eta abar.

Komunikabideak be lenago ez zegoan presentzia daukie bertsolaritzan.

Orokorrean, bertsolaritzeak gaurko gizartean lengoan baiño prestigio geiago dauko.

4—Len esan dodan lez, bertsolaritza dibertsioa da. Olan, pentsatu geinke bertsolaritzako gaiak be entretenitzekoak dirala edo beintzat izan leikezela. Bertsolaritza jenero erritarra dan ezker, erabilitako gaiak be arinak, garrantzirik ez daukenak, berba batean dibertitzekoak izan bear dabe.

Alan be bertsolarien non kantetan ebezan gai serioak eta garrantzizkoak? Bertso jarrietan.

5—Lengo bertsolarien be, kantetan ebezan gai serio eta astunak, batez bere gai politikoak, erlijiosoak, moralak edo dana dalakoak. Baina gai orren lekua ez zan sagardotegia, bertso papera baiño.

Bertso jarrien tradizioa bertsolaritzearen bi adarretako bat da, bestea baiño inportanteagoa dalarik bearbada. Orrek esan gura dau bertso jarrien sailak, bere arautegia bear dauala, eta landu egin bear dala. Gaia eta kalidadea bertso jarrietan beste modu batera eroan bear dira. Bertso bakoitzean betegarri arruntik ezin leike onartu. Bapateko bertsotan, ostera, onartu bakarrik ez, bearrezko edo derrigorrezkoa da kasu batzutan. Teknikaz eta izkuntzaz bere, bertso jarriek beste maila bat bear dabe.

— Lengo eta oraingo bertsolaritzearen desbardin-tasunakaz segitzearren, esan geinke bertsolaria bera be aldatu egin dala, eskola dala eta ez dala batez be.

Gaur dabilten bertsolaririk geienak karreradunak dira. Unibertsitateetik pasatakoak edo pasetan dagozenak.

Oindino bertsolari klasiko eta modernoan ereduak dagozan arren, laster klase bakarra lotuko da. Orrek ez dau esan gura bertsolari guztiak bardinak izango diranik. Geiago oindino, gaurko bertsolari ereduak diferentea izateko modu geiago dau bertsolaritza klasikoan baino. Onen arrazoia eskola eta gaur jasotzen dogun informazio dana izango litzateke.

**6—Bertsolaritzaren ezaugarriak**

Bertsolaritzak badaukoz ezaugarri orokor batzuk: jenero erritarra izatea, entzulea bear dauna, aozko literaturan sailekoa izatea eta abar. Baina bertsolaritzak badauko bere-berea dan ezaugarriarik. Arte klase-rik geienetan bi momentu desbardin dagoz. Lenengo momentuan sortu edo kreatu egiten da. Bigarrenean barniz, interpretatu.

Bertsolaritzan ostera, bi momentu onik bat bera dira, au da, sortzea eta interpretatzea era batera egiten dirala. Auxe da bertsolaritzaren ezaugarri berezia, beste arteak ez daukiena.

Beste ezaugarri baten bila asita, inprobisazioan pentsako zenduen batzuk. Baina inprobisaziñoa ez da Euskal Erriko pribilegioa bakarrik. Inprobisaziñoa izkuntza eta kultura danetako osagaia izan da eta da. Literatura idatzia agertu baino len, aozko literatura zan nagusi leku guztietan, alan da ze, inprobisaziñoa erri danetan izan da.

7—Orduan, itaundu zeinkie, ze desbardintasun dago bertsolaritzaren eta poesiaren artean?

Azalpen andietan sartu barik, bertsolaritza jenero erritarra da. Poesiak ordea, ez dauko erritarra izan bearrrik eta geinetan izan be ez da.

Erritar esatean, erriko jeneroa esan gura dot. Ez errikoa. Zerbait errikoa danean, erriaz berba egiten daualako edo erria gai modura artu daualako esan gura dau. Kasu onetan, erriak parte artuten dauala esan gura dot. Erri osoaren jeneroa dala. Orixe da bertsolaritza eta poesiaren arteko desbardintasuna.

8—Bertsolaritzearen beste ezaugarri ezagun bat da, bertsolariak atzekoz aurrera pentsetan eta osotuten dauala bertsoa. Bertsolari geienak beintzat olan jokauten dabe. Onek badauko beronen azalpena.

Bapateko bertso asko kanta bear danean, ez dago puntu bakotxa arrazoi andiz kargetarik. Orduan, azkeneko puntua gailurtzat artuten da, asikeratik azkenera progresiño bat eginez. Orretarako, aurretik "betelana" egiten da. Au arrazoi andiegirik artu barik eta aria bizitasunez eroana egiten da. Betelana bear andia da. Bertsolaria azkenengo puntua buruan daukola kantetan dabil. Bertsoak osotuteko orduan, bi eratako bertsoak izan daitekez. Batzuk indar guztia azkenean kargetan dabenak dira. Eta beste batzuk barriz, bertso guztian ekarten dabe indarra eta azkeneko puntua ondorio edo biltzaile modura dator.

9—Bertsolaritzearen ezaugarriak ikusita gero, zergatik gustetan da bertsoak entzutea? Zeintzuk dira elementu gustagarriak?

Bertsoak iru osagarri daukoz forma aldetik: doi-

nua, neurria eta errimea. Neurria edo erritmoa, bertsolaritzatik aparte bere gustagarria da, eta izkuntza mailan errima zetan esanik ez.

Gainera berez gustagarri diran osagai oneri faktore andi bat batzen jako: gaxtasuna. Zeozer gatxa izateak emozioña emoten dautso. Eta arriskua be bai.

Bertso bat asi eta amaitutea alanbre ganean joatea lez da. Erdian jausi daiteke. Orekariari goierak emoten dautson arriskua bertsolariari jenteak emoten deutso.

Eta emozioña. Bertsolaritza jokoa danean, txapelketa baten esate baterako, badau emozioño orokor bat. Jokotik aparte be, bertsolaritzan badagoz momentuak, emozioña bapatean agertuten dabenak.

Laburtuz, iru osagarri formal onetatik dator arriskua jente aurrean eta emozioña bere sortuten da. Danen artean edertasun bat egiten dabe, batzuri gustetako eta beste batzuri ez.

Azkenik, bertsolaritzea gustetako badago beste elementu berezi bat: bapatekotasuna.

Beste era batera esanda, jasoala kantantu. Ez gertatu dana kantatu gertatzen ari dana baino. Orduan entzulea be bertan sartuta dago. Eurak bere bertsoen gaiak dira.

Esate baterako egin daigun plazan gagozela. Aurretik beste ikuskizun bat egon da. Jenteak a ikusi barri dau eta, bertsolariak igoten dira.

Bapatean, jaso dan uraxe kantetan dabe, au da, aurretik egon dan ikuskizuna gaitzat artuta. Asto laster bat izan bada, esate baterako, astoak oindino an dagoz, astodunak bere an dagoz, giro guztia an dago. Bertsolaria kantetan ari dala, astoren bat arrantzaka asten bada, bertsolariak bereala orretaz kantako dau. Orixe da bertsolaritzearen arrakasta nagusiena dakarrena, momentukoa edo pasa barri dana kantatea. Orixe da inprobisaziñoaren funtsa.

10—Esan daigun azkenik, bertsozaleak bertsoaren egituraz gustetara eldu bear dauala. Orrek esan gura dau, kantua, neurria, eta errima bere txukuntasunean eroatea beste barik gustetan jakola bertsozaleari. Onegaz batera momentua bera be ortxe dago, au da, jasoala kantatzea. Esaten danak garrantzi andia deuko, baiña entzuleak dakiena kanteta be, bertsozalea gustura dago. Berak dakiena esaten jakolako, baina neurtuta, kanteta eta errimagaz. Beste arte batzutan be, azalari ala edukinari garrantzi geiago emon, gora-berak izaten dira. Batzuk edukinari emoten deutsoe garrantzi geiago eta beste batzuk ostera formari.

Onegaz esan gura dot, edukinetik aparte, bertsoen formari bere garrantzia emon bear jakola, sarri askotan edukinari geiegi begiratuten deutsegulako.

— Eta onenbestez naiko argi dago bertsolaritzeak elementu gustagarriak daukozala. Beste kontu bat da nori edo zenbat gustetan jakon.

**Bigarren zatia**

— Parte onetan bertsoen egiturari buruz egingo dogu berba Asteko, doiñu eta neurri-mota desbardi-nakaz asiko naz.

1— Bertsolaritzan neurri klase asko dago. Doiñuak barriz asko geiago. Neurri batzuk doinu ezbardin asko daukiez, beste batzuk irulau, eta azkenik bada-goz doiñu bakarreko neurriak bere.

Neurri klase asko esan dot, baina zenbat dira asko? Pare bat dozena inguru esan ezkerok ez gara asago ibi-liko. Orretatik, batzuk asko erabiltzen dira eta beste batzuk ia iñoz be ez. Batzuk bapateko bertsoetan era-biltzen diran bitartean beste batzuk, gatxagoak direla-ko edo, bertso jarrietan. Onek dira neurririk erabilie-nak:

**Zortziko andia:** Lau puntutakoa da  
Puntu bakotxa lerro bitakoa  
Silabak: amar - zortzi  
Neurri onek eundaka doinu daukoz.

**Adibidea:**

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Bai	-etz	us	-te	-ko	de	-zu	-te	bai	-nan
ez	na	-go	o	-so	LA	-SAI	-A		
zal	-du	-ni	-o	-te	e	-gu	-ne	-ra	-ko
sar	-din	-za	-na	-ren	U	-SAI	-A		
A	-ni	-ma	-ren	-tzat	me	-se	-de	-rik	-ez
gor	-pu	-tza	-ren	-tzat	E	-TSAI	-A		
ez	-ta	ho	-rre	-la	kos	-tun	-bra	-tu	-a
I	-zu	-e	-la	-ko	AR	-TZAI	-A (Izuela)		

**Amarreko andia:** bost puntutakoa da  
Silabak: amar - zortzi

**Adibidea:**

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Mu		kox	-kor	bat	i	-tsu	au	-rre	-ko
zu	-e	-la	AL	-DA	-ME	-NI	-AN		
GI	-zon	bu	-ru	-soil	bi	-zar	zu	-ri	bat
bi	ma	-ku	-lu	-ren	GAI	-NI	-AN		
ka	-le	-er	-tzi	-an	i	-ku	-si	nu	-en
	-no	-ra	e	-zin	JOA	-ni	-AN		
ta	be	-ra	nor	zan	ja	-kin	nahi	e	an
in	-gu	-ra	tu	NIN	-TZA	-NI	-AN		
li	-mos	-na	-txo	bat	es	-ka	-tu	zi	-dan
Jain	-ku	-a	-ren	I	-ZE	-NI	-AN.		

(Pello mari Otaño)

**Zortziko txikia:** lau puntukoa da  
Silabak: zazpi - sei  
Neurri onek doiñu asko daukoz

**Adibidea:**

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
I	-tu	-ren	-go	ha	-ro	-tza			
E	-rra	-mun	JO	-A	-KIN				
ha	-se	-rre	o	-men	zau	-de			
ze	-ren	du	-gun	JA	-KIN				
san	-tu	-rik	ez	lai	-te	-ke			
fi	-a	-tu	ZU	-RE	-KIN				
San	Kris	-to	-bal	ur	-tu	-ta			
jo	-a	-ri	-ak	E	-GIN.	(Ezezaguna)			

**Amarreko txikia:** Bost puntutakoa da  
Silabak: zazpi - sei

**Adibidea:**

1	2	3	4	5	6	7			
A	-gur	a	-dis	-ki	-de	-a			
Jain	-ko	-ak	E	-GU	-NON				
zer	be	-rri	den	e	-rra	-zu			
zuk	o	-toi	XU	-BE	-RON				
E	-za	-gu	-tzen	du	-zi	-a			
Bar	-ku	-xen	E	-TXE	-HUN?				
Ha	-la	ko	ko	-bla	-ri	-rik			
ez	o	-men	da	NE	-HON				
bi	-si	-taz	joan	nin	-dai	-te			
ez	ba	-litz	hain	U	-RRUN.	(Bidarraiko Otxalde).			

**Iru puntuko andia:** iru puntutakoa  
silabak: amar - zortzi

Iparagirreraren "ezkongaietan" abestia be neurri oneta-koa da.

**Adibidea:**

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Pe	-llo	Jo	-se	-pe	ta	-ber	-nan	de	-la
hau	-rra	jai	-o	da	LA	-RRAU	-NEN		
E	txe	-ra	joan	-da	e	-esan	o	-men	du
ez	-ta	ne	-re	-a	l	-ZA	-NEN		
Be	-ra	-ren	a	-mak	to	-pa	de	-za	-la
hair	ho	-rrek	ai	-ta	zein	DU	-EN.	(Ezezaguna).	

**Iru puntuko txikia** iru puntutakoa  
Silabak: zazpi - sei

**Adibidea:**

1	2	3	4	5	6	7			
Le	-nen	-go	-a	fe	-de	-a			
ge	-ro	ES	-PE	-RAN	-TZA				
hi	-ru	ga	-rre	-nak	ba	-du			
mi	-la	bat	MU	-DAN	-TZA				
hil	da	ka	-ri	-da	-de	-a			
bi	-zi	da	MEN	-GAN	-TZA.	(Izuela)			

## EUSKAL ASTEA

**Badagoz** ain ezagunak ez diran neurriak bere. Besteak beste bederatziko laburra, zortziko zaarra, Iparragirrerren doiñua... Bestalde, **Etena** pausa edo geldiune musikal bat da, testuak be errespetatu bear dauana.

Esate baterako, zortziko andiko puntua artu ezkerro, badakigu lenengo lerroak amar silaba daukozela. Baina amar silaba oneik boskote bi dira: Au da, bosnaka joan bear dabe, musikeak erdian pausa bat egiten daualako. Ez dago berba bera zatitu eta salto egiterik. Ezin da olan egin:

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
He	-men	-dik	da	-to	-zen	-on	-do	-re	-nak

"Datozen" berba etenean zatituta lotuten da. Orixe da etena ez errespetatzea. Olan egin bear litzake:

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
He	-men	-dik	da	-tor	on	-do	-ri	-o	-a

Etenaren kontu au, zortziko andia eta zortziko zarraren egitura daukien neurrietako eta puntuaren lenengo lerrorako bakarrik da. Zortziko txikia eta antzeko egitura daugienetan ez dau arau orren loturarik.

### 2– Errima

Errima oskidetasunean oiñarrirituen da. Baina otsen kidetasun, diñot ez bardintasuna. Esate baterako, be-LARRA, zi-LARRA. Berba onen azkeneko silabak bardinak dira. Otsen kidetasunak askoz aukera zabala goa emoten dau. Esate baterako, ini silaba: BA-DA-GA. Irurek bokal berbera daukie. Konsonanteak ez dira bardinak. Baina aurretik beste letra batzukaz indartuta badator, errima on bat lortu daikegu. Esate baterako: gaba-bada-baga. Aurreko bokalak be A daukie.

#### a) errimaren neurria

Errima normalean bi silababaz egiten da, azkeneko bi silabalaz. Esate baterako, guraso, onena, edo arri bi silabak -raso, -rena, -garri dira. Ba-dagoz bi silabako berbak bere. Orduan, berba osoa artuten da. Esate baterako: jaso, gabe, ori, eta abar.

Arira joan ezkerro, silaba bakotzak bi edo iru letra daukoz. Iru posibilitate dauzalarik: konsonante gei bokala: SA, BA, LE. Bokala gei konsonante: AL, EZ, UR. Eta konsonantea gei bokala gei konsonantea: SAL, GUR, GATZ. Badagoz laukoak eta iñoiz bostekoak be bai: BRUZ (deabruz), BLEZ (doblez).

Goazen orain oskidetasun onetik errima txarra egiten daben berbetara. Emen batez bere, deklinabideko atzizkiak eta beste guztiak artu bear dira. Ona dekli-

nabideko atzizki batzuk: ak, ek, ren, i-ri, ra eta abar. Onekaz egiten dan errimeak oskidetasun andia deuko, baiña azkenengo silaba deklinabideko atzizkia izanik, lauretan errepikatuten da.

Beste atzizki batzutara joanda be gauza bera pasatzen da. Esate baterako: ki, ro, teko-tzeko, ten-tzen...

#### b) Sail onen balorapena

Aditza esaldiaren eta izkuntzaren bizkarrezurra da. Ganera euskeraz ugaria da. Aditz forma asko ezoi-koak diran arren, badagoz asko eta asko berba egitean erabiltzen diranak. Aditz jokatua, laguntzailea, sintetikoa, ia errima klase danetan agertuko da.

Adberbioak aditzaren lagunak dira. Aditzak garrantzi andia badauko adberbioa be ortxe ibiliko da. Ganera adberbioak abantaila andi bat daukie: ez dirala deklinatu bear. Esaterako, ondo, txarto, ederto, aina... Badauz bai adberbio oneri gaineratuteko moduko atzizkiak bere: ondoen, txarren... Baina atzizki onek ez dira deklinabidezkoak.

Izenordeak gitxi baina oso garrantzitsuak dira. Izenen orde zatekoa danez, edonon eta edonoz egokitututen dira ondo. Onek, barriz, deklinatu egin bear dira, eta ez dago adberbioaren modura edozelan izterik.

Adjetiboen saila dator urrengo. Adjetiboak izena zelakoa dan esaten dausku. Edozer edo edonori jartzekoak dira. Adjetiboak edadura zabala artuten dau eta egokiera ugari dauko. Adjetiboen eragozpen bakarra deklinatu bearra da.

Azkenengo sailean izenak datoz. Auexek dira garrantzi gitxien daukinak. Ez da edozelan erabiltzeko, bera tokatzen danean baino. Badagoz egokiera andiko izenak, baiña errimarako gitxien balio dabenak dira.

3— Eta amaituteko, neurriaz egingo dogu berba.

Bertso teknikaren gauzarik gatxena neurtutea da. Neurriak ez dau goraberarik onartuten. Zeatza izan bear da.

a) Neurtutea onenbeste silaba sartzea da. Ondo neurtuteko, berbakaz kombinaziñoak egin bea dira. Baiña berba danak ez dira bardinak. Batzuk **kendu-iminikoak** dira. Berba oneik esangurarik aldatu barik, silaba geiago edo gitxiago emoten dabez. Silaba bakarreko, biko edo iruko izan leikez.

SILABA BAKARRAK: Izan leikez Adberbioak: bai, ez ba,... edo Izenordeak: gu zu zeuk...

**Adibidea:** Kantatu bear dot (nik)

(gaur) bertsotan itza

berez ezin dot baiña

badago giltza

Ederki badakigu

nola den bizitza  
kantatzeko gogoan  
(gu) pozik gabiltza.

**SILABA BIKOAK:** izan leikez Adberbioak: aizu, beraz, noski, arren... izenordeak: niri, bera, aiek... erakusleak: ori, orrek... Posesiboak: nire, aren, gure... edo elkarrizketako berbak: gizon, andre mutil...

**IRU SILABATIK GORAKOAK:** izan leikez Izenordeak: berori, zerorrek... Posesiboak: beraren, berorren... edo elkarrizketa berbak: gizona, adiskidea, laguna...

b) Bertso bateko neurria anditu naiz txikertuteko, kendu-iminiko berbetatik aparte **atzizikiak** bere badaukoguz. Atzizkietan badagoz kendu eta iminikoak. Edo kendu edo iminita esaldiari aide andirik ezartzen ez dautsoezanak.

c) **Berba alkartuekaz** be bardin pasatzen da. Ganera euskeraren berezitasun andi bat dira eta asko laguntzen dabe bersoak egiteko orduan.

d) Badagoz berba batzuk desbardinak izan arren esangura bera daukienak. **Sinonimoak.** Esate baterako: maiz-sarri, sarritan- anitzetan...

e) Beste atal andi bat **laburdura (e) eta luzadurak**

(f) dira. Laburdurak batez bere. Esate baterako, Egin -genun... Seigarren atala elipsia da. Berba batzuk jan egiten dira. Bertsoetan milaka elipsi egiten da. Baina ez dago edozein berba jaterik.

g) Azkenengo diptongoak. Noiz da diptongoa eta noiz diptongo apurtua? Ondo neurtuteko oso bearrezkoa da ori.

Diptongoak bi bokaleko bikoteak dira: AI, OI, UA, EA... Euskeraz, IA, IE, IO, eta IU dira diptongo izateko uzkurrenak. Oneik beti dira diptongo apurtuak edo silaba bikotxak. Gastelaniaz edo erderaz "ocasión", edo "medio" diren artean, euskeraz o-ka-si-o edo me-di-o dira. Diptongoak apurtuta silaba bitan bananduta lotuten dira.


Bertsotan erderazko berbak ez direnez gitxi erabiltzen, onek arauak erabiltzea komenigarria da.

4— Baliteke beste maratila batzuk bere egotea. Baina neurriaren mekanismoak jotzeko, zazpi modu onekaz funtsezkoenak topatu doguz. Klabe onexei esker neurtzea posible da. Onexek emoten dabe ain arrigarria dan neurketa zeatzaren bidea.

## BERTSOLARIEN

Urte batean geiagoetan  
emen gagoz alkarturik  
gure izkuntzaren edergarriak  
biotzez entzun gurarik;  
zuen gogoa, beti, ikusten dot  
euskera aide pozturik,  
oi zein eder dan anaitasuna  
euskal itzez indarturik.  
Gure arbaso agurgarriak  
sortu eben izkuntzia  
egiz da eder, egiz jakintsu  
argitasun emoillia;  
alan zirian gure aittittak  
eta euren arnasia  
onbide baten sortuaraziz  
euskaldunen aberria.  
Bertsolaria ta euskalduna  
munduan apartekoa  
Asier jaunak ba-dau ortako  
doai berebizikoa;  
ori Gaitikan dabil landuten  
bertso eskola jokoa  
gure izkuntzari on egin nairik  
edertuz itzen giroa

PAULIN





# SASIAK TA GIZONAK

Zelai orlegi garbiak ta solo zabal landuak, ondo, emoten dabe begietan. Etxe aurreko garitzak maieztaren argitasunean dozgarri agertzen eben euren sabela ta itxaropena emoten eutsen lur langilleari. Ta etxe osteko artotzak garagarrilleko eguzki printzapean itxaropenez poztuten eben baserriar langillea. Lanaren ekiñaldia arnari ederretan agertzen da. Lurrak diño, landu nagizu ta nik emongo deutzuet lan-truke zuen bizirako lansaria.

Soloak aun-ez ta alboz danak ama etxera begira egozan ta leioak zelai ta soloetara adi gari ta arto sasoian. Poza soloan ta itxaropena etxean, lanak ba-dauka bere eskar ona sasoi egokia eltzen danean. Solo zabalak ta zelai orlegiak, bakoitza bere erara, emonkorrak dira golda ta atxurraren esanera. Luna, beti, egon da gertu gizonaren izerdiak sari-tuteko. Izatez daroa langilleari laguntzeko borondate ona.

Baiña lur lana bertan bera itzi ezkerro, goldea, area, alperra, bostortza, nabasaia ta atxurra lotsatu-ta geratzen dira ta ugerrak ondatzen ditu. Ori da euren arerio zapaltzaillea. Beste aide batetik osterazur dagoz arerioak, lur guztia ondatu nairik. Lengo lur zabal garbietan arerio gaizto legez asi dira, ormenetan, etsai koskorrak agertzen.

Sasia ez dau bildurtzen eguzkiak ta ez euriak, biak ditu bere lagun. Atxurra ta kodaiña geldi dagozan tokian arantza kirtenak bildur barik zelaisail barriak bereak ditu ta lengo bedar sail ederra lurrera joango da. Errezki bere menpean artzen dau lurra ta gozaro aurkitzen da bere baitan. Euri zaparrada ederrak poztu egiten dabe. Ur gaz lurra busti ondoren, sasi-sustraiak luzatu ta gizendu egiten dira lurraren barruan kanporuntz geroago ta indar geiagoz zabalduz.

Zelai ederrak naiago leuke, argi ta garbi, bere sena ikustea, baiña goldalari ta atxurlariak bizitzarako lan onuragarriagoak bear ditue ta sasia bere baitan poztu ta zabaldu egiten da. Zoritxarrez edo alan bearrez gure Euskalerriko lurretan saria nautsizen doa. Larrak, oteak ta sasiak itto bear dabe gure lurraren edertasun guztia.

Lurra eder dalarik, andre ta gizontegia askoz

ederragoa da. Luna gizonarentzat sortua dan ezkerroz, mendi, solo ta zelaiak baiño askoz ederragoa izan bear dau gizadiak. Gizon ta andre, gazte ta ume biotz eta argiz osoturik, elburu eder baterako sortuak gara. Lurreko etxe-Jabetasuna gauza aundia da ta orren egarriz bizi da gazte arotik giza-semea, baiña orrez goitik giza bizia aldatu egiten da beste bizitza ederrago baten itxaropenez.

Izan bere notin edo personearen izatea Egille berberaren irudikoa da ta andre ta gizon zorioneko bizitza baterako sortuak. Au da Egilleak bere aldetik eskeintzen dauskun Aitaren etxean beragaz bizi izatea, ez arantzarik ta ez negarrik izango ez dan bakezko bizitz ederrean.

Askatasun guztiagaz gurasoen eskuetan itzi dau umeak bereganantz begira argibidean jarri ta aurre-eroatea. Iñok iñori egia ta zuzentasuna erakutsi bear ba-dautsoz, arazo eder orretan lenengo egizko maisuak gurasoak dira. Baiña gurasoak bertan bera isten ba-dabe ardura ori mimokeriak gaitik, seiñek laster igarriko dautso gurasoen argaltasunari ta bereak egiten zur ibiliko da. Ta txikia dan bitartean negarraren bitartez lortuko ditu nai ditun kasketaldi guztiak ta era berean, umearen nortasuna arantzazko sasi baten antzera eratuta geratzen da.

Ta gero gazte aro bidean sarturik, ingurua menperatuta dauka ezeren bildur barik ta barari gogoak emoten dautsona baiño besterik ez dau egiten. Ori da bere gurarizko elburua, jo ta ke, ta nausi izatea. Ta ortik datoz ondoren neke samiñak ta negar egiteak ez dau balio.

**PAULIN**



---

## ATZERRITARRA

---

Norbera leku batetik eta bestetik ibillia da oraingo oiturari jarraituz, orkoa eta emengoa ikustea eta txastatzea atsegíñez eginda.

Izan badira toki ezberdiñak ederrez betekoak. Ni baiña, egia esan, txokora biurtzerakoan nasai artzen dot arnasea eta nire kolkoari diñotsat egin dodala azkenengo ibillaldia; beste baterarte.

Gainera nire asaben sustraiak sakonki dagoz sartuta Euskal-erriko luraren biotzean, au da, Gernika'n, orregaitik onetaz zeozer gogoratzea otu jat; zuek gogaiterazteko arriskuaz, nunbait.

Labana'n jaiota izan arren ama dot Lumotarra eta danok dakigu Gernika'ko Batzar-Etxea, antxiña baten Lumo'ko izan ziran lurretan dagola eregita. EZ da egite au nire amaren errialdea (nirea noski) geiago maitazera naroana, gure antxiñako legeen jaioterria, gure arbasoak legeak eratu eta erabiltzen asi ziran tokia dalako baiño.

Iru urtegaz etorri (Euskalerriratu) eta senitartearen goraberak dirala-ta (osasuna etabar), orra or nun aurkitzen nazan Forua'n nasai eta pozik bizitzen. Ez dakit zein urtetan izango zan; España'ko gerra-inguruetan, edo. Baiña bai Gernika'tik iru kilometrotara, Bermeo'ko bidean zala eta gure etxea kamiñoaren (autobidearen) ondoan egoala. "Erremerterie" bere izena.

Araxe irizteko, Gernika'tik urten eta Agustinos'-ko ikastegia igaro, Landaberde, Lurgorri, Tilos'etako ibilbidea, zimela'ko jantokia eta Dondiz auzoa dagoz.

Aurrera eginda, lautada zabala agiri da; esku-maldean "Kurtiderie", antxiñako lantegia, antxe bertan beti egona. Ezkerrera jo, aurreratxuago joan eta metro batzutako bidezkan zear, barrurantz, antxe aurkitzen da antxiña baten izango ete zan Gai-xotegi bat.

Nik ez dakit zergaitik esaten eutsen "Gaixotegia" egoitza areri. Bearbada bere itxuregaitik. Erdiko ate-gaínean gurutze aundi bat daualako eta atearen albo bietan, errezkadan, leio aundi batzuk etxeurreko aide guztian be bakardadea erakusten dautsolako bidetik igaroten dan edonori, beti ixillik eta misteriotsu, antxe zertan dagoan eta zer egiten

dauan etxe arek inork ez dakiela dagokion bezela. Ez dot esan mailla batekoa dala eta itxura dotoreduna. Oindiño tente eta bizi-bizi ikusi dot uda onetan San Inazio'ko jaietan Forua'ra urreratu nazanean.

Aurrera joanez, aratxuago, "Beko-Taberna" dogu, aldi aretan Sangroniz anaien tabernea. Ondonan, San Kristobal auzora doan bidea eta aurrez-aurre beste bide bat; au da Eleiz-Nagusira daroana beste auzo batetik igarota, trenbidetik ur.

Gitxi gora-bera antxinako eskolaren ondoan, leen esandako lautadea amaiturik asten da Munda-ka-Bermeoraiño doan autobidea, eta Bermeon itxasoagaz beragaz topo egin arte, aldatz gora-beeratan doa, aide batean eta bestean baserri alai eta koloretzu artean, zoragarritzko ikuspegieta zear, bidaztien begiak ederrez asetu arte.

Lenago erriko eskolea zana igaro-ta (aldatza gorantz asten danean) "Makiñistea'ren" etxea dator eta aurrez-aurre frailleen konbentua, bere alboko ormearen atzeko aldean eleizarako beste bide bat doalarik.

Konbentuko ezker aldean leengo "Torre- Barri" tabernea agiri da, -oraintxe "Restaurante" dotorea biurtuta.

Zenbatu ezinak dira orain Forua'n eregi diran etxeak eta egin diran aldaketak eleizarako eta plazarako bide inguruetan.

Urrengo gaillurraren etxeak "Kantale-Goiko" eta "Kantale-Beko" dira izenez eta azkenekoak, amaitzeko, "Kandidane" eta "Erremerterie" base-riak, kamiñoaren albo bietan kokaturik aurkitzen diranak. (Bakotxa aide banatan).

Onetaraxe, tapa-tapa iritxi gara nik gura izan dodan lekura, "Erremerterie" etxera, nire umea-roaren abira, beti orrenbeste amets eta gomuta sortuazo daustan txokora.

Jakinez aitatu dodaz azkenengoz etxeon izenak, eurak eta ango inguruak izan ziralako lekuko nire txikiaroaren jolasaldi eta joan-etorrietan.

"Kandidane", bidearen ezkerreko aldean dago, Gernika'tik Bermeo'ra begira. Aldi aretan, base-

---

## ARAZOAK

---

rriaz gain, taberna txiki bat zan eta bere izena izeko bateri zor deutso, urteak diran arren il zala.

"Erremerterie", kamiñoaren bestekaldean kokatzen da. Larrosaz beteko, edo ingurutariko baserri baten antzeko etxe txikia bera. Gaur egun, itxurea zeozer aldatuta dauan arren, barru-aldean, batezbe, ondo atondurik iraunderazi da.

### GERNIKALDEA

Orain, edo gaur egun, zuzen esatean, Forua'ko lurraldetik igarotean, luze zabalean bedartzak, piñudiak dira ugari. Ez da solorik ez baserririk ikusten; txaletak, lora-tokiak biurtu dira leengo landa eta zelai. Alan be, badira baserri batzuk, nigandik maitte izanak, zut eta lirain, ondo atondurik jarraitzen diranak.

Andik pasatzerakoan, batzutan, nire begiak berez doaz bide-egalera, leenago, antxina baten egoan ubide sakon eta bedarrez estaldua dan lekura, Gernika'ko bonbaketaren egunean ordu latzak bertan, eskutuan igaroak eta ain aitzu ezin diranak gogora datozala; otoitza edo ixilune bat egitea otuten jatildakoren bateri egiten jakon lez. (Gernika'ko bonbaketaren egunean, arratsaldeko iruretatik zazpirakarte egon gintzazan tokia baita).

Ubide aretan, ume bi eta andra bat, bertan etzunda, egondako lekua da. Iru lagun guztiz, uste. Egazkiñak datozala ikustean, etxeondoko ubide aretara joatea otu jakun, antxe ur-ur, Gernikaldean zaratotsa zalako; bonben zaratea nunbait, egazkiñen orroe, marruna entzuten zan zeru-aldean. Batzutan gorago; beste batzutan beerago. Alboetako bedarartean ikusten genduanagaitik eta zarateagaitik genkizan egazkiñen joan-etorriak. Noiz etorri, noiz aldunduten ziran.

Zer izan ete zan orduko egun aretan bei edo idia ren buztarriaz lurra lantzen edo lanean egoan gizonaz? Gure ezkutu-lekutik, asieran, zeozer ateraten neban burua eta berau ikusi neban orduan. Sasitze artean babestu zala, uste. Ariñeketa baten joan bear ko zan etxera, egazkinak metrallatu egingo eben, bestela. Gertaera guzti au margo bat bailitzan gogoratzen dot beti.

Onaxe eltzerakoan, esan bear dot askok itaundu

daustela egun aregaitik. Gernika'ko bonbaketaren egunagaitik. 26.4.37. Zer egin neban arratsalde aretan? Nun egon nintzan?

Lenengo eta bein esan bearrean nago ni txikia nintzala eta nire inguruan gertatzen zana, nekez ulertzen nebala. Gaiñera nik senditartekoekaz ez dot sekula gai ori aitatu ez erabilli: tristura, amurrua sortzen da. Orain gitxi dala liburu bat urten da kalera onetaz eta bonbaketaren gunean Gemika'n egoan eta ondiño bizi dan jentearen arteko eritxi batzen da. Nortzuk ziran egazkiñen pilotoak? Zenbat ziran? Ze ordutan asi eta noiz bukatu zan bonbaketa? zenbat jente egoan Gernika'ko merkatuan, astelena izan da? Onelako galderak eta beste asko datoz idazti onetan.

Zaar eta gazte, umeak etabar? Eta abereak? (Arek bere an gelditu ziran, anka z gora). Errefuxioetan, zer? Zelakoak ziran? Zer egin eban jenteak bonbaketa asi zanean, eta gero? Bira-biraka dabil liburua gai onetaz eta orduan gudea zalarik jazoten ziranakaz eta urrunagoko une baten pentsatu ezker o etorriko ziran ondorenakin bere.

Errefuxioei buruz, adibidez. Zurez eginda ei ziran eta jaurti ebezan bonbak suzkoak edo sua biztuten ebenetarikoak izanik (geienak, beintzat), jaus ten ziranekoxe sua artzen eben indarrez. Sugarrak sakabanatu ta jentez beterik egozan errefuxioak sutan jarri bear. Alkarren antzekoa Gernika guztian. Dana dala, mota biko bonbak jaurti ebezela diño; suzkoak eta apurtzailleak.

Jentea, orduari buruz ez dala bat etorri; bazka londoan asi eta illuntzean edo arintxuago amaitu, agian. "Memoria Colectiva del bombardeo de Gernika" deitzen da liburua eta ango eta orduko egunak, jazoerak, etorri jatuz burura. Bizitzari azterketa txiki bat noizetik noizera egitea ez da txarto egongo, ezta?

Aldi aretan Forua'ko frailleen konbentuko ikasleak, (fraillekiak, gureztat), gudea asi zanetik, bertatik aldunduta egozan, bakoitxa bere etxean, jakiña. Euren orde z errefuxiatuak etorri ziran. Gipuzkoa'ko errietatik edo erri batzutatik, ain zuzen. Liburu onetan diño, eta nik be zerbait darabilt gogoan, "Makiñistea'nean" egon zirala errefuxiatuak. Nik ez dakit toki bietan egon ete ziran edo ni oker nagoan. Dana dala, egia da esandako errefuxiatuak Forua'n denboraldi baten egon zirala, "soldadu nazionalak" lurralde aretan sartu ziran arte.

Ez da erraz, niretzat, jakitea eta gomutatu, zein fetxatan gertatzen ziran gauzak orduan. Egia da zurrumurruak entzuten zirala augaitik edo besteaugaitik. Bolada baten izan zan asturiastarrak eleizak erretzen etozala, entzutea. Guk ez gendun olakorik ikusi. Euskalerrian etzala eleizarik erre, iñoan jentek (arerioak bonben bidez izan ezik), Eusko Jaur-laritzak zaindu ebazalako. Nik, beintzat gogoan dot Forua'ko konbentuaren aurrez-aurre gudari bi ikustea eleizea jagoten.

Gure ama, izeko eta etxeko jente nagusia astele-nero Gernikaratzen zan. Orduan, bai etxeko ala auzoko dala, Gernika'n zer jazotakoa (gertatutakoa) kontatzen zan etxera itzultzean. Danetarikoa, baina merkatuko goraberak batez be. Egun aretan, (bonbaketaren egunean), Gernika'ra joandako jentea, bazkalordurako edo goizago itzuli zan. Egazkiñakaitik egoan ardureaz, antza.

Goizean-goizetik "alkahuete" edo "txibato" egazkiña ("avión de reconocimiento"), erderaz esaten jakona, agertu zala iñoan jentek, baita gero beste egazkin batzuk ere. Kanpai otsak larregitan izan zirala eta sirenea be jo ebala. Ikareaz edo bere burua gogo barik ikusi-ta, etxekoandre eta jenteren batez, beintzat, bazkal orduko Gemika'tik aide egin ei eban... Oba aide egin ebenak geiago edo danak izan ba ziran.

Orain arte, Gernikarrak etziran gerraren arriskuaz orrenbeste konturatu. Betiko txokoa bizitzen ziran, betiko modu bardiñean.

Baiña oartzen asiak ziran, gero eta geiagotan agertzen zirala, txiki eta aundi, mueta guztietako egazkinaz, Durango'ko bonbaketaz, eta jentea be, gerrari buruz iñun direnak kontatzen urreratzen zala Gernika'rantz. Orduan asi ziran, benetan, zerura begiratzen. Egazkinen joan-etorriak zaintzen. zelako zaratea, norabidea, etabar.

Bazkal-ondoren asi ziran egazkiñak etorten. Astun-astunak etorri be, (arenbeste bonbakin, jakiña). Txandaka, batzuk etorri, bonbak bota, itzuli, eta beste egazkin errezkadea agertzen zan minutu batzuk barru gauza bera egitera, errepikatzen. Errefuxioak sutan egozalarik, jentea urtetzen zanean, egazkiñak beerantz jatzi eta metrallatu... Ez eben bonbadunok denborea galdu. Illundu arte jarraitu eben era berean. Gernika'ko erri guztiak txingarra zirudian, gau illunari argia emoten eutsola, gaua egin zanean, eta guk Kantale-goiko'ko tontorrera joanda ikusi gendunean.

Gautu egin zan azkenean; gizonezkoak Gernika'ra jo eben, goizalderaiño bertan egonaz, zaurituak eroaten eta laguntza emoten. Surik amatau ezin baina, urik etzegoalako, arean be.

Urrengo egunean, gurean, goizean goizetik, zurrumurru zaratatsuak entzuten ziran; jagiterakoan, etxea, goiko malladietaraino jentez beterik egoala oartu nintzan. Gure etxea kamiñoaren egalean dagoan ezker, Gernika'tik Bermeo'rantz joateko, etxearen ate-aurretik igaro bearra dago. Antza, Gernika'ko sutzarratik igesian, oiñez joian jentea, bidean atsedean eta jatekoren bat artzeko geratzen zan, gero aurrera jarraituaz itxasalderantz joatea izan leitekean aren asmoa .

Benetan, etzegoan, egoera onetan, zer aukeraterik. Andik aurrera kale gorria izango zan gernikarren bizitokia. Baten-batek edo, (ez dakit zeinik), etxeko giltza sakelean gomutatzen eroan edo gorde ei eban. Zeretik asi bearra egoan. Besterik gabe.

## NAZIONALAK

Etxeko nagusiak (gurasoak), erriko agintariak agintzen ebena egin bear zala, iñoen.

Gernika'ko ondarena ikusirik, norabidea galdu-ta bezela aurkitzen giñan, zer egin ez dakigula.

Laster, Franco'ren "indarrak" etorteko zirala-ta, bidezabalaren ondoan bizitzen ziranak, andik aide egin eta urrunago egozan beste baserrietara joateko, bide-ondotik kanpora joan bear zala, etxeko atek zabalik utzita, agindu eben. Onetara egin gendun, esandako egun berean egin be; ateari giltza emon barik laga eta etxetik aldendu, gure auzoko adiskide batzurengana joanda.

"Santiene" baserrian egon gintzazan "soldadu nazionalak" bidetik aurrera joan eta igaro eitezala ikusiak izan arte.

Etxe guztia ankaz gora aurkitu gendun itzuli ginanean. Zer ostu etzegoan, baina iru-lau txanpon arrapatzearen, niri, itsulapikoa apurtu eusten. Gordailluren bat egoalakoan, antza.

Txinatarra zan, oindino be aitzu ez dodan aitaturiko itsulapikoa. Lahana'n erosita. Zurezkoa zan, baita egiazkoa, benetakoa izan be!! Zabaldu ezin

## ARAZOAK

eben ezkeru, apurtu bearrean aurkitu ziran lapurrak, (soldaduak). Baliorik gabeko iru edo lau txanpona-gaitik!

Lengo larrialdiak igaro ondoren, gero etorriko ziranak etziran makalagoak izango. Bakoitza, aal izango eban moduan konpondu bearko zan. Batzuk, kanporatu, beste batzuk, gelditu. Etorkizunik barik aurkitzen ziranak edo Politikea zala-ta, bildur izan edo minduta egon, agian kanporatu. Bertan bizi izateko (zelan edo alan) aukeraren bat aurkitu ebenak, geratu.

Ume txikiak zertzelada txikietan konturatzen dira. Ni, etorri ziran "soldadu nazional" artean, italiar eta alemaniarraz oartu nintzan; eurak izan ziran eta, lenengotan, soldadu lez jantzirik ikusi nebazan bakarrak. Badiño mairuak bere egon zirala; nik neuk ez nebazan iñoiz ikusi.

Italiarrak, Forua'n, gure inguruetan bederen, Agarrebeke'ko basen-ian jarri eben euren "Intendentzia" tokia. Araxe joan gintzazan egun baten (urrengo egunean, uste) ume talde bat, iru-lau lagun, ogiaren eske, ogi zuna euren eta. Ez ginan joan baten edo bitan baiño, jakina, laster amaitu zalako "txolloa". Arin asi ziran agintariak (edo dana dalakoa) ogi baltzaren "razionamiento" ori nagusitzen. Italiarrak etziran egoera onen errudun. Euren atseginak ziran eta euskaldunakaz lagun egin ziran laster.

Alemaniatarra beste puntu eta aparteko bat zan. Garbirik jantzita ibiltzen ziran, beintzat andik egon ziran denbora laburrean. Adiskidetasuna erakusten eben jenteagaz, umeakaz, batezbe. Guri, egun baten, jolasean soka saltoka gengozala, eurentaroren bat gugaz batera sartu jakun, soka. Oinietakoak dizdiratsu eroiezan eta oinietan asi eta beleunetaraino narroz jantzirik joiazan. Zart !... Zart !... otsegiten eben oinakaz lurrean jotzerakoan; nabarmen eta zaratatsu.

Une aretan, Gernika, erria bezela zabor pilloa zan. Ezin ezetara be bertan bizi; beraz, aide egin barik geratu ziran kaleko gemikarrak, inguruetako errietan edo baserrietan sakabanaturik egozan edo bizi ziran.

Egun aretan, Gernika'ko agintari barriak asma-tu eben, osorik egoan, edo gelditzen zan plaza zaar-rean, arkupean, inguru guztiko arkupeen tokia, adrilluzko ormen bidez, zatitu, banandu eta gura

eben denderuei eskeini egitea dendak jarri egiezan. Beraz, laster antxinako plaza edo dantza-tokia bera, dendaz inguraturik aurkitu zan.

Arkupe barik gelditu zan, bada, aldikada baten Gernika; euria izaten danean ibilteko ain eroso dan arkupeen umezurtz. Nor baiña, onelako uskeri baten oartu, ango inguruetara begiratuta?

Dendaz ingurutariko merkatua, ainbat urtetan iraungo eban egoera onetan; Gernika osoa birregei arte, eta orain urrunagoko beste leku baten ipiñi eta merkatu barria dagoan moduan egotea lortu arte.

Merkatu barri onetan jarraitzen dira egiten orain-go salerosketak; batezbe orren ospetsu izan diran beti illeroko astelenak eta, zer esanik ez, Urriko illeraren astelenak.

Orain, ainbeste urte igaro ondoren –irurogei bat–, jente gitxi aurkitzen da bizirik, orduko gertaerak argi edestu daikezala. Gure etxe-ondoan bizi zan mutil bat, esate baterako, mutil gaztea bera, ezkongabea orduan, noski, San Juan Ibarran lantoki bat ebana. Bizikletan egiten ebazan egunero Forua'tik Gernika'ra dagozan 3 km.ak.

Bertan, San Juan Ibarran eta bere inguruetan izan zan lenengoz bonbak jausten asi ziran lekua. Berari entzun neutsazan bonbaketaren gauean jasandako esturak, nekeak, goizalderaino Gernika'n, ekiñaldian, laguntza emoten ibilli-ta ikusi ebazanak.

Orain, lantokia beste toki baten dauka: Tilos'etako ibilbidea asten dan edo asten zan tokian bertan. Bera, aratuago bizi da. Tilos'etako ibilbidearen barruan egin dabezat etxeetan. Frontoi barria dagoan lekutik ez urrun. Antxiñako bere Forua'ko baserrira udan, oporrak emotera senide guztiakaz doa. Ondo baino obeto zaintzen dabe baserria, azken baten bere seme nagusiarentzat izango baita.

## LARRONDO





---

## AZTERKETAREN ORDEA

---

### Zornotza 1997'en Azaro'aren 25'an

Orain dala denboratxua, karmeldar batekin berbetan egon nintzan, gure aberriaren gora-beerako arazoai buruz. Puntu asko ikutu, eta ulermenik ez dala gure artean agertzen ikuziaz, logikara joan ginan.

Nere iritzi au emon nebanean: azterketarako gaiezatasunean agertzen garela gaur esan neutson.

Ainbesterako ete da?/- Bai! danok gabiltzelako gizonaren arrazoiak; eta ori danok dakigu "norbere-kiko jokoan guztiz sartuta egotea dala".

Ainbesteko abertzaletasun, edo errikotasunezko motak aoz-ao eta gaur eguneroko barrikaritan erabilten dalako lotsarik gabe; inor ez, edo jente gitxi argitzen dala uste dot. Zergaitik? Jainkoa alboratu egin dogulako, sabelak gustiz zabaldu egin doguzelako, eta dana iruntsiteko prest agertzen garalako, besteen ardura barik.

- Ik, uste dok ori olan dala?

- Bai! eta gainera ezaera oso zaarra dauka: (andra zaarrak, gasteari aolkua emoterakoan) "Gizonak pozik eukiteko, sabela bete eta sabel bekoa argi ibilli".

Orrek esan gura dau, gure andra zaarrak baino, beste baten betek be bakiala; errez ikusten diralako gaztetasunezko jazarraldiak zeintzuk diran, eta albotik sartutakoak nork eta zertarako sartuak diran.

Orduan? Lan ikaragarria daukagula oitura zaarren ariari eltzeko, eta illuntasunezko itsuera emoten daben orbel alperrezko mordotik aren baten arro atarateko.

Zelan? Talde guztiak, ez daukaguz alkartzeko batzordeak? Begitu ba, non egin daitekezan erri-gizaren ulermenerako solas-aldiak; baita be, abertzaletasun guztia Euskadiren egarrizko alkartasunera bideratzeko.

ATUTXA'TAR PAUL



### EUSKERAZALEAK (Euskerea erabiltearen aldeko Alkartea)

#### BATZAR NAGUSIA

Euzkerazaleak Alkartea urteroko Batzar Nagusia egingo dau, bere Batzar-Etxea dan Larreategi'ko Kolon kalean 14, 2n., eskoian, urterillaren 29'n. Egunean. arratsaldeko 8'retan.

Batzar orretan urteko ekintza guztien barria emongo da, diru-arazo guztiak zeatz agertuko dira eta Alkartearen Batzordean aldakuntzak egiteko aukerea eskiñiko da: Lendakaria. Diruzaiña eta maiko bi aldatzeko. Bazkide guztiak dira eskubidedun autagaiak eskintzeko.

**LENDAKARIAK**

#### ASAMBLEA GENERAL

La Asociación EUSKERAZALEAK celebrará su Asamblea General Anual en su domicilio social en Colón de Larreategui, 14. 2., D.º- el día 29 de enero de 1998. a las 20 h.

Como puntos del Orden del Día se establecen los siguientes: 1.- Exposición de actividades de 1997. 2.- Información económica referente al mismo año. 3.- Renovación de cargos de Presidente, Tesorero y dos vocales. Todo socio puede presentar candidaturas. 4.- Ruegos y preguntas.


**EL PRESIDENTE**



**EIISMIZZZLEZK**

Colón de Larreategi, 14 - 2.ª dcha.  
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



## BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat  
artuten dogu, geure erri onen  
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik  
lagunduten deutsegu gogo osoz,  
geure nortasun berezia indartuten  
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten  
deutsagu, kultur adierazpenen  
artean, gure ezaugarririk gorena  
dan euskerearen garapenari.

---

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

---

BBK  
**Bilbao Bizkaia** Kutxa